



**JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA**

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
junta@aezkoa.net
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

Ariben, 2023ko abenduaren 26an, eguerdiko ordu bata eta hogeita hamar minutuak zirela, Aezkoako Batzarre Nagusiak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legez deituta, haren presidente titularrak zuzenduta eta jarraian adierazten diren kideak bertan zirela, eguneko honako gai hauek aztertzeko:

BILDUTAKOAK

Batzarreburu jauna: Karlos Bueno Reka

Batzarrekide jaun/andereak: Anchorena Laurenz, Francisco Javier - Galarza Larrayoz, María Carmen - Merino Iriarte, Juan Esteban – Zabalza Barberena, Izaskun.

LEHENA.- AURREKO AKTAK ONETSI

Eragozpenik agertu ez denez, onetsi da 2023ko azaroaren 13ko bilkuraren akta.

BIGARRENA.- GAZARI BURUZKO MOZIOA

Gazako egoerari buruzko mozio bat irakurri da, Pirinioetako Mahaiak inguruko tokiko erakunde guztietara bidalia. Irakurri ondoren, Osoko Bilkurak aho batez (bertaratutako guztiek) erabaki du bertan azaldutakoa osorik babestea eta, ondorioz, Nafarroako Parlamentuari honako hau eskatzea:

1.- Gatazkako alderdiei nazioarteko legedia betetzeko eskatzea, bereziki NBEren ebazpenei dagokienez.

2.- Israelek milioi bat pertsona baino gehiagori emandako ebakuazio-agindua salatzea, nazioarteko zuzenbidearen aurkako nahitaezko desplazamendua eragin duelako, eta laguntza humanitaria iritsi ahal izatea eskatzea, herritarrek ura, elektrizitatea, elikagaiak, sendagaiak eta bizitzarako funtsezkoa den guztia eskura ditzaten.

3.- Sala dezala Israel gazatarrei ezartzen ari zaien zigor kolektiboa; izan ere, besteak beste, Genevako Konbentzioak eta Hagako Konbentzioa barne hartzen dituen Gatazka Armatuen Legearen arabera, zigor kolektiboa gerra-krimena da, baina baita gizateriaren aurkako krimena ere.

Beraz, Nafarroako Parlamentuari eskatzen diogu Espainiako Gobernuari eska diezaiola indarrean dagoen nazioarteko legezketasuna betetzeko eta betearazteko duen betebeharraren arabera joka dezala, eta su-eten berehalakoa eta iraunkorra eska dezala.

Jarraian, "Yala, Nafarroa Palestinarekin" plataformak argitaratutako antzeko manifestu bat irakurri da. Osoko Bilkurak horri atxikitzea erabaki du, eta honako hau eskatzea:

1- Su-eten berehalakoa eta iraunkorra ezartzea Gazako zerrendan, eta nazioarteak horren ikuskaritza egitea.

2. Gazako zerrendako blokeoa kentzea eta laguntza humanitaria sartzen uztea.

3. Palestinako biztanleen bizimodu normala ahalbidetzen duten zerbitzuak eta eskubide zibilak eta lanekoak berrezartzea.

4. Israelek armen eta baliabide militarren erosketa eta salmenta etetea, biztanleria zibilaren aurka erabiltzea saihesteko.

5. Palestinako herritarren aurka egiten ari diren gerra krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak salatzea, genozidioa baitira (Craig Mokhiber

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren definizioa), eta, aldi berean, presoak askatzeko eta errefuxiatu guztiak itzultzeko eskatzea.

6. Israelek Palestinako Lurralde Okupatuetan egiten ari den garbiketa etnikoa eta Apartheid erregimena amaitzeko eskatzea. (Garbiketa etnikoa eta Apartheid dira HRWek, Amnesty Internationalek eta NBERen hainbat txostenek zonako egoera definitzeko erabiltzen dituzten terminoak).

7. Israeli eta Palestinari buruzko NBERen ebazpenak zorrotz betetzeko eskatzea, bai eta nazioarteko komunitateak estatu palestinarra aitortzeko ere.

8. Administrazio maila guztietan harreman diplomatikoak eta lehenasunezko elkartzeko komertzial eta militarra etetea bultzatzea, Israelgo estatuak apartheid politikak aplikatzen, legez kanpoko koloniak sortzen eta sarraskiarekin jarraitzen duen bitartean.

HIRUGARRENA.- 2024. URTERAKO AURREKONTUEN ZIRIBORROA AZTERTZEA ETA 2023. URTEKO BEHIN-BEHINEKO EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

2024. urterako prestatutako aurrekontu proposamena aurkeztu da. Aurreikusitako proiektuak biltzen ditu, eta baita 2023. urteko gauzatzearen araberrako gastu eta diru-sarreraren kalkulua eta urte amaierarako itxiera-aurreikuspena ere.

Proposamenei buruz luze eta zabal eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak erabaki du ziriborroa bizilagunen Batzarrera aurkeztea; urtarrilerako, hilak 12, deituko da; ondoren, bilera berezia egingen da, aurrekontua eta haren exekuzio oinarriak eta 2024rako plantilla organikoa hasiera batez onesteko.

LAUGARRENA.- 2024AN EGIN BEHARREKO BASO-LANETAKO JARDUKETEN AURKEZPENA ETA HORIEK KONTRATATZEKO ERABAKIA HARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Lur Geroak idatzitako ATF 2023-2024 proiektuaren barruan egiteko dauden baso-lanen separateri dagozkien memoriak eta balorazioak irakurri dira, bai eta kontratua kudeatzen duen unitatearen txostena ere. Gastua 41213-6900001- 2024ko Baso Jarduketaren Proiektuari egotziko zaio.

EFPLren 41. artikuluan ezarritakoaren arabera, loteak separaten bidez diseinatu dira, horietako bakoitza osatzen duten prestazioak barne, eta modu independentean kontrata daitezke, zeregin mota bakoitza gauzatzea oztopatu gabe. Obra-kontratuaren balio zenbatetsia ehun eta zortzi mila eta laurogeita bat euro eta hogeita hiru zentimokoa da. (108.081,23 €) BEZik gabe, honako zenbateko hauetako hiru lotetan banatuta:

- 1. lotea: Baso-berritzea: hondakinak kendu eta erretzea, lurra prestatzea eta txanda ertaineko espezieak landatzea. Lotearen zenbatekoa: hirurogeita zazpi mila ehun eta zazpi euro eta hamazortzi zentimo (67.107,18 €), BEZik gabe.

Aezkoa Batzarre Nagusiak birlandatze beharrezkoa den landare kopuruaren aurre-erreserba egin du mintegian, erabilgarri egonen direla bermatzeko. Enpresa esleipendunak mintegiarekin zuzenean egin beharko ditu ondorengo izapideak.

- 2. lotea: udako garbiketak. Lotearen zenbatekoa: hamabi mila bederatziehun eta hamazazpi euro eta laurogeita sei zentimo. (12.917,86 €) BEZik gabe.

- 3. lotea: abeltzaintzako sastrakak kentzea. Lotearen zenbatekoa: hogeita zortzi mila eta berrogeita hamasei euro eta hemeretzi zentimo. (28.056,19 €) BEZik gabe.

Aurreko zenbatekoei, edo esleipenetik ateratzen direnei, dagokien BEZaren %a aplikatuko zaie, lan motaren arabera. Aplikatu beharreko ehunekoak dagozkien balorazio-eranskinetan agertzen dira.

Halaber, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean aurreikusten denez, lotetan banatzen denean, lote edo prestazio bereizi bakoitzaren esleipenean aplikatu behar diren prozedura- eta publizitate-arauak multzoaren balio metatuaren arabera zehaztuko dira; eta, beraz, kontratazio-prozedura hautatzeko, loteetako bat ere ez da erreserbatutzat kalifikatzen, dituen egikaritze-ezaugarriak direla eta.

Aurreko paragrafoan azaldutakoagatik, obra-prestazioen kontratua EPFLren 80. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitu ahal izanen da, prozedura sinplifikatuaren bidez. 60.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu-eta hornidura-kontratuetan eta 200.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan bakarrik erabili ahal izanen da.

Aurreko dokumentuak eta txostenak ikusita, Osoko Bilkurak ATF 2023-2024 proiektuari dagozkion lanak prozedura sinplifikatuaren bidez kontratatzea erabaki du. Kontratua egintza honetan onetsita gelditu den baldintza-agirian ezarritakoari eta aipatutako baso-jardueren eta -lanen proiektuan jasotzen diren baldintza teknikoei jarraikiz egingen da. Horretarako, prozeduran parte hartzeko gonbidapena igorriko zaie Aezkoa-Erroibar-Zaraitzu inguruko enpresa guztiei, eta gutxienez bost gonbidapen egin beharko dira.

2023-2024 aldirako baso-jarduketan eta -lanen proiektuaren aurrekontua, osotara, 118.889,35 eurokoa da, BEZa barne. Proiektua idazteagatik eta lan zuzendaritzagatik teknikarien lansariak 15.455,62 € dira, BEZa barne.

BOSGARRENA.- HAINBAT

- Ibarreko udalekin izandako bilera.

Jakinarazi da, Aezkoako udalekin bilera izan ondoren, erabaki zirela Pirinioetako mahaian aritzeko Aezkoako ordezkariak. Honakoak izanen dira: Batzarre Nagusiko presidentea eta Merino batzarrekide jauna. Bilera informatibo bat egin nahi da, udaletan sartu berriko pertsonentzat.

- Hormigoizko Mugen Ibilbidea

Nafarroako Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren Memoriaren Nafarroako Institutua Hormigoizko Mugak proiektua gauzatzen ari da. Proiektu horren bidez, frankismoak eraikitako (behartutako milaka langilek egina) Pirinioetako Gotorlekua berreskuratu eta balioetsi nahi da. Proiektuaren barruan, liburuxka batzuk argitaratu dira, memoria-ibilbide horiek ezagutarazteko. Une honetan, Aezkoari dagokion liburuxka egin gabe dago; Olako bunkerrak ikusten egon ziren, eta Nafarroako Gobernuak informazio-panelekin egin nahi du ibilbidea. Azalegiko goialdean daudenak ere ikusi dira, ibilbide berean sartzeko; hala ere, oraingoz ez dago garbitzeko eta egokitze aurrekonturik, paneletarako baizik.

- Ingurumen Zuzendaritzarekin egindako bilera

Nafarroako Gobernuako Ingurumen Zuzendaritzarekin izandako bileraren berri eman du presidente jaunak. Bilera horretan, espediente asko atzeratuta daudela adierazi zen, bereziki ikuskaritzako akten onespina eta baso enkanteen espedienteak. Zuzendaritzak badaki zein den egoera, baina ez du

aurrekonturik langile gehiago kontratatzeko. Era berean, adierazi zuten Irati kudeatzeko (erabilera publikoagatik) dirulaguntzaren egungo zenbatekoak mantentzen saiatzen ari direla, eta ezinezkoa dela kopuru handiagoak gaitzea. Bazkaleku planaren kudeaketari dagokionez, gauza bera gertatzen da gutxi gorabehera, eta azaldu zuten Batzarre Nagusiak finantzaketa handiagoa lor lezakeela Biosferaren erreserba deklaratzaren denean.

- Digitalizazioaren obra.

Lanen enpresa esleipendunak idatzi bat bidali die obren eraginpean dauden udal guztiei, zuntz optikoa bideratzeko obren ondorioz sortutako kalteak bere gain hartzeko eta konpontzeko konpromisoa hartzen duela adierazteko. Konponketak udaberrian egingen dira, eguraldi hobea egingen duelako.

- 4 haraneko proiektuak.

Aurreko bileretan azaldu den bezala, zazpi egunez Iratiko lau ibarretan oinez ibiltzeko proiektu bat garatzen ari da. Badago proposamen bat, behin aurkeztuta, zehaztu eta berrikusiko dena.

SEIGARRENA.- GALDE-ESKEAK

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago agertu ez denez, bilkura bukatutzat eman da arratsaldeko bostak eta hogeita hamar minutuak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.